



ARKAMURKA NATUR ELKARTEAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, VISTA ALEGRE PARKEKO ZAINZA PARTEKATUA BIDERATZEKO

Zarautzen, 2016ko uztailaren 20an

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

Xabier Txurruka Fernandez jauna, **Zarauzko Udalaren** Alkate-Lehendakaria, egintza honetarako Udalaren ordezkari gisa ari dena, eta 2016ko ekainaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren arabera.

Eta bestetik,

Pello Izkeaga Murua jauna (72.428.454M) **Arkamurka Natur Elkartearen** lehendakaria, egintza honetarako elkarte horren ordezkari gisa ari dena,

AZALDU DUTE

I.- Vista Alegre parkea Zarauzko natur gune baliotsua den parkea da.

II.- Zarauzko Plan Orokorrean Vista Alegre Parkea hiri-parkea izendatua dago eta espazio libre eta berdegune publikoen sistema orokorreko kalifikazioa du. Parkeak 45.700m² inguru dauzka eta hiri-parkearen izaerarekin batera, babestu eta gorde beharreko ingurumen-kontserbazioko eremua da; balio ekologiko garrantzitsuak eta oso elementu natural interesgarriak ditu, tamaina handiko zuhaitz-mota askorekin (55 zuhaitz espezie inguru zenbatu dira, tartean 40tik gora arkamurka edo artelatx). Europako Batasunak NATURA 2000 sarearen barruan sartu zuen parkea 2004ean (Garate-Santa Barbara eremuaren barruan).

Hortaz, eremu horretarako, helburu hauek proposatzen ditu plan orokorrak: herritarren aisiarako erabilera mantentzea bertan dagoen zuhaitzia babestearekin bateragarri eginda, eta horretarako, ingurumena hobetu eta zaintzeko jarduerak bultzatzea.

III.- Hiri-parkea izanik, Udalari dagokio haren zaintza eta babesa eta esleituta du parkearen lorezaintza zerbitzua. Baina aldi berean NATURA 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremua da, hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiari ere badagokio haren zaintza.



Dena den, Zarauzko Udalak badaki zerbitzu horren barruan egiten denaz gain ekimen gehiago egin behar direla parkearen balio ekologikoak gorde eta hobetzeko. Aitortu beharra dago Kontserbazio Bereziko Eremuaren izendapen horrek ezartzen dituen betebeharrak ez dutela, oraingoz behintzat, ageriko ondorioz izan eta esan liteke Vista Alegreko basotxoak indefinizioan jarraitzen duela.

IV.- Zarauzko udalak interesgarri ikusten du Ingurumen arloan ere herritarren parte hartzea sustatzea, hori baita bide zuzenena guztiok natura ezagutu, gozatu eta errespetatzeko. Ildo horretan Arkamurka Natur Taldeak ingurumen arloko herritarren parte hartze horretan ibilbide ukalezina du.

V.- Vista Alegre parkea, Garate Santa Barbara NATURA 2000ko gunearen zatia da (ES2120007 kodearekin) eta Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) HELBURUEN ETA NEURRIEN dokumentuak jasotako irizpideak bete behar ditugu, 221/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Garate Santa Barbara eremua Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu eta kontserbatzeko neurriak ezartzen dituenak agintzen duen eran. Ondorioz edozein ekimenek gunearen kudeatzaile den Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia beharko du.

VI.- Arkamurka Natur Elkartearen helburuen artean, Zarautz inguruko natur balioak ikertu, zaindu, ezagutarazi eta horien aldeko jarrerak sustatzea dago. Helburu horiek lortzeko, lur jabe pribatu zein publikoekin hitzarmenak sinatzea aurreikusten du betiere kontserbazio helburuetan alde biak bat badatoz.

Udalak, bere aldetik, Vista Alegre parkeko kontserbazio egoera hobetzeko borondatea azaltzen du, horretarako osagai naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratuz eta artatuz, pertsona guztiak gozatzeko modua izan dezaten eta ondorengo belaunaldietarako ere hala gerta daitezten.

Ildo horretan Udala eta Arkamurka Natur Taldea prest daude elkarlanean aritzeko, eremuaren kudeaketa eraginkorra izan dadin.

Hori guztia ondorengo klausulekin bat etorritz:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da, Vista Alegre parkearen balio naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratuz eta kudeatzeko akordioa finkatzea. Parke horretarako proposatzen diren ekintzak, atxikitzen den ekintza planean zerrendatzen dira. Ekintza Plan hori gutxi gorabeherakoa da, hasierako ikuspegi orokorra izateko



soilik. Aurrerago, hitzarmena sinatzen denean, urteko ekintza planetan zehaztuko dira ekimen zehatzak eta dagozkien aurrekontu xehatuak.

BIGARRENA.- Alde bakoitzak bere gain hartuko dituen konpromisoak

Zarauzko Udalak:

- Zaintzailletza akordio honen lehen klausulan azaldutako helburuekin bat egingo duen kudeaketa eredia erabiltzea. Bereziki, ez egitea bertako basoa murriztu dezaketen mozketarik eta ez landatzea edo sartzea inolako flora edo fauna alerik Arkamurka Natur Elkartearen aurretiko aholkularitzarik gabe.
- Vista Alegre parkearen garbiketarako edo mantenurako Udalak esleitu dezakeen edozein zerbitzu-kontratuan kontuan izatea aurreko helburuak, hala kontratuaren baldintza-pleguak idazterakoan nola esleipendunari aginduak eta irizpideak ematerakoan.
- Urte bakoitzerako adosten diren ekintzak finantzatzeko, Udalak urtez urte erabakiko du, zenbateko diru-laguntza bideratuko duen zehazki Vista Alegreko ekintzetarako.

Arkamurka Natur Elkartek:

- Hitzarmen honen helburuekin bat datozen kontserbazio eta berreskurapen ekimenak Udalari proposatu, zuzendu eta jarraipena egitea.
- Vista Alegre parkerako urteko ekintza-plana egin eta Udalari aurkeztea. Udalak oniritzia azaldu beharko dio Plan horri eta edozein ekintza zehatzi martxan jarri aurretik.
- Parkeko natur ondareak daraman bilakaera azalduko duen urteroko txostena egitea. Txosten horretan urte horretan egindako jarduerak azalduko dira eta horiek emandako emaitzak baloratuko dira.
- Gutxienez urtean behin Arkamurkako ordezkari batek, aipatutako txosten horiek eta akordioaren egoerari buruzko azalpenak emango dizkie Udaleko alderdi politikoei Ingurumen batzordean (betiere, horiek horrela eskatzen badute).
- Aholkua ematea udalari parkean eragina izan dezaketen edozein ekintzen inguruan. Bereziki Torretoa berreskuratzeko aurreproiektuaren inguruan edo auzotar edo herritarrek proposatzen dituzten ekimenetan.



- Arkamurkak, udalak emandako diru-laguntzaz gain bilatu ditzakeen diru iturrien berri emango dio Udalari.
- Arkamurkak, Udalak kontratatzen dituen lorezaintza, garbiketa edo beste zerbitzuen inguruan edozein iradokizun, aholku edo irizpide eman nahi izanez gero, Udalarengana zuzenduko da zuzenean, eta Udalak esleipendunari emango dizkio bidezkoa irizten dituen aginduak.
- Arkamurka Natur Taldeak harremana mantenduko du Vista Alegreko auzoelkartearekin parkean egiten dituzten ekintzen inguruan elkarren berri izateko.

HIRUGARRENA.- Vista Alegre parkerako sarbidea

Hiri-parke publikoa izanik, Arkamurkak ez du behar izango inolako baimen berezirik parkean sartzeko hitzarmenean jasotako akordioen jarraipena egiteko helburuarekin.

LAUGARRENA - Zabalkundea

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, bi aldeek hitzarmena eta bere xedea ezagutarazteko ahal dituzten komunikabide guztiak erabiltzea adosten dute, elkar aitortpen publikoa eginez.

Era berean, elkarren artean hala adostuz gero, parkearen sarbideetan iragarki panelak ezarriko dira Udala eta Arkamurkaren arteko akordioaren berri emango dutenak.

BOSGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Alde bakoitzak pertsona arduradunak izendatuko ditu, hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko. Hasiera batean, honakoak izango dira arduradunak:

- Zarauzko Udala: Hirigintza eta Ingurumen udal zerbitzuko ingurumeneko teknikaria.
- Arkamurka Natur Taldea: Jon Zulaika Isasti

SEIGARRENA.- Erantzukizuna

Zarauzko Udalak ez du erantzukizunik izango Arkamurka Natur Elkarteko kideek, edota haiek eskatuta lanean ari den beste edozein pertsonak, hitzarmena gauzatzeko jardueretan izan ditzakeen kalte material edota pertsonaletan.



ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia eta gertakizunak



Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean. Hitzarmenaren epea 20 urtekoa da, eta indarrean jarraituko du tarte horretan harik eta amaitzeko edo iraungitzeko arrazoiak gertatzen diren arte.

Ondorengo arrazoietakoren bat gertatu behar da hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko:

- Bi aldeen artean ados jartzea.
- Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.
- Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea. Kasu horretan, alde horrek beste aldeari jakinarazi beharko dio.

Hitzarmenaren interpretazioan bi aldeek ezadostasunen bat izanez gero, bitartekotasuna erabiliko da konponbidea emateko. Horretarako bi aldeek bitartekotasun batzorde bat osatuko dute. Bertan Udala, Arkamurka eta Euskal Herriko Unibertsitateko ekologiako irakasle bat egongo dira desadostasunaren arrazoiak eztabaidatzeko. Alde bakoitzak bere arrazoi guztiak aurkeztu ondoren, ebazle moduan onartutako pertsonak, gatazkari soluzio bat proposatuko dio, baina irtenbidea bi aldeen borondate onez onartu beharko da.

Eta adierazitako guztia onartzen dutela frogatzeko, biek izenpetzen dute dokumentu hau, bi aletan eta ondorio bakarrarekin, izenburuan adierazitako tokian eta egunean.

<p>ZARAUZKO UDALA</p>  <p>Xabier Txarruka Fernandez Zarauzko Alkatea</p>	<p>ARKAMURKA NATUR ELKARTEA</p>  <p>Pello Izkeaga Murua Elkartearen Lehendakaria</p>
---	--

Vista Alegreko EKINTZA PLAN OROKORRA

1.- SARRERA

Dokumentu honetan, Arkamurka Natur Elkartek, Udalaren jabetza duen Vista Alegreko parkerako hainbat lan proposatzen ditu. Proposamenaz gain, elkarren arteko Zaintzailtza Hitzarmenaren bitartez hauek gauzatzeko bere burua eskaintzen du; gidaritza lanetarako zein diru laguntza iturriak jorrazteko.

1.1.- Zergatik Vista Alegre.

Arkamurka Natur Elkartek urteak daramatza Zarautz eta bere inguruko balio naturalak aldarrikatzen. Urteak dira zehazki Bista Alegretik, bertako zuhaitz aberastasuna ezagutzeko ibilbidea liburuxka batean argitaratu eta hura ulertzeko ekipamendua diseinatu zuela. Horrez gain, azpimarratzekoa da artelatza, bai espezie babestu gisara zein eratzen dituen artelatza basotoek habitat berezi gisara duten garrantziaren aldetik urtez urte ekimen desberdinetan landutakoa. Baso horiek duten garrantziaren isla da, azken batean, 2004an, Europa mailako Natura 2000 sarean, Garate Gaina eta Santa Barbara bitarteko 130 ha-ko esparrua natur gune babestu gisara sartu izana. Horren ondorio nabarmenena izan da, natur gune babestu horretan 92/42/CEE Europako Zuzentarauak jasotzen dituen helburuak lortzeko plangintza bat onartzearen beharra. Zuzentarauaren xedapenak biltzen dituen plan hori Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 2013an eta, garbi esateko, ez da eremuan, geroztik, aurrerapausorik somatu.

Plangintza hori gauzatzearen ardura bereziki alorreko eskuduntzak dituen administrazioari badagokio ere, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiari, gainerako herri administrazioak ere lotzen ditu, eta bereziki Zarauzko Udala, lehendik ere urrats nabarmenak emanak dituena bere ingurune naturalaren kontserbazioan. Zarauzko Udalaren inplikazio horren isla dira Agenda XXIaren baitan hartu dituen konpromisoak eta, bestalde, Santa Barbara nekazal auzoaren ingururako 2009ko ekainean onartu zuen Plan Berezia. Plan horretatik Vista Alegreko saila kanpo geratu bazen ere (lur sail urbanoan dago), haren helburuak bete-bete hartu litezke hemen ere kontuan.

Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi plangintza hori gauzatzeko dagoen eragozpenik handiena babestutako eremuaren baitako lur sailen izaera dela, denek baitute jabetza pribatua; denek, Vista Alegreko lur saila izan ezik. Lur sail honetan Zarauzko Udalak sarri administrazioei eskatzen zaien lana burutu dezake: gainontzeko eremuetarako agintaritza publikoak eskatzen duena, inon baino lehenago eta modu eredugarrian lan horiek bere etxean gauzatzea.

1.2.- Vista Alegreko ekimenerako dituen mugak

Lehendik parke publiko izaera duen lekuan kontserbaziorako irizpide gorenak (Europa mailako naturgune babestu bati dagozkionak) aplikatzea helburu zaila dirudi, lehendik egonkortuta dauden hainbat erabilera aldatu beharko direla pentsarazi dezakeelako. Bestalde, eta hiriaren hurbiltasunak ere hainbat helburu goren lortzeko ezintasuna dakar, ezinezkoa baita hiriaren eragin zuzenetik, horren distantzia motzera egonik, bertan indartu nahi diren habitatak eta horietako hainbat espezieren presentzia eta garapenerako baldintza egokiak eskaintzea. Vista Alegreko hiriaren eraginpeko jarraituko du beti, halabeharrez.

Izaera biak (aisialdirako parke vs. kontserbaziora bideratutakoa) bateragarriak ez ote diren pentsa liteke lehen azterketa batean.

Vista Alegreko kasu zehatzean, gainera, auzo elkarte aktibo bat egoteak plangintzaren aurkako jarrerak sustatu ditzake, proposatutako neurriek auzotarrek parkearekiko lehendik duten asmoekin bat ez baldin badatoz.

1.3.- Vista Alegreko ekimenerako dituen abantailak

Hiri eta nekazal eremuaren artean egoteak dituen mugak ukatu gabe, izaera bikoitz horrek eskaintzen ditu bestelako aukerak. Parke bezala egonkortu diren oinezkoentzako bideek erraztu egiten dute gaitasun fisikoaren aldetik edozein mailako jendearen bertaratzea. Hurbiltasun horrek, bestalde, inolako denbora edo zailtasun aldetiko aitzakiarik gabe bertatik paseotxo bat emateko aukera eskaintzen duen neurrian natur gunearen balio eta funtzioak jendartean azaltzeko erakustoki aparta izan liteke.



Horregatik guztiagatik, eremu hau hiria eta babestutako mendiaren arteko probetxuzko trantsizio paregabea osatzen du erabilera pedagogikorako, babestu nahi denaren kontzeptu eta balioak hurbiletik ezagutarazteko.

2.- LUR SAILAREN EZAUGARRIAK

Villapadiernako Kontearen jatorrizko etxaldea 50. eta 60. hamarkadetan urbanizatu egin zen arren mantendu egin da esparru hark zuen lorategiaren zati handi bat (4,5 ha).

Duen artelatzen zuhaitz kopuru handia (>40) dela eta, lorategi horrek natura aldetik badu bere garrantzia eta hori baieztatu baino ez du egin 2004an Natura 2000 Sareko Leku izendatu zen Garate Santa Barbara naturgune babestuan sartu izanak.

Izendapen horrek ezartzen dituen betebeharrak jatorrizko lorategiaren osaketa eta egituraren inguruan hausnartzea eskatzen du, irizpide berrien argira berrantolatu dadin, hain zuzen ere, proiektu honetan proposatzen diren ekimenen bitartez lortu nahi dena.

3.- HELBURUAK.

Aurreko atalak azaldu ondoren, honako helburu orokorrak dagoeneko aipatu litezke:

- Artelatzen presentzia hobetu; bai kantitatez, zuhaitz berrieekin, zein daudenen egoera hobetuz.
- Basoto naturalen (bereziki artelatzen osatutakoak) osaketa hobetu, berezko espezieen presentzia nabarmenduz eta exotikoena ahal dena murriztuz.
- Baso biodibertsitatearekin lotutako elementu eta prozesu berriak sortu.
- Naturgune babestuaren ataria den Vista Alegrearen parke periurbanoaren ezaugarriak (aisialdiarekin lotuak) eta kontserbazioarekin lotutakoak bateragarri egingo duen kudeaketa abian ipini.

Horiek lortzeko, lehen aipatu den Garate Santa Barbara ES2120007 KEBaren Helburuen eta Neurrien dokumentuko (221/2012 DEKRETUAN, urriaren 16koan) honako atalak hartu dira erreferentziazat egin beharrekoaren diseinurako:

- 3. Neurria. Kontserbaziorako edo berrezartzeko esanguratsuenak diren artelazdun lursailak Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zarautz eta Getariako Udalak erostera bultzatu.
- 5. Neurria. Santa Barbara ermita inguruko eta Pagotaldiako magaleko artelatzen eta hariztien masa mistoetan artelatzari fabore egiteko gutxienezko inpaktudun ekintzak egingo dira. Horretarako:
 - Sistematikoki eta progresiboki zuhaitz exotikoak kenduko dira (sasi akazia, haritz amerikarra ...), kentze lanek artelatzen eraginik izan ez dezaten ziurtatuz. (Ekintza hau KBEko baso natural guztietan egingo da).
 - Artelatzen helduekin zuzenean kompetentzian dauden bertako zuhaitz aleak kenduko dira (Ekintza hau KBEko beste egutera zonaldeetara zabaldu ahal izango da).
 - Artelatzen ia ez dagoen zonaldeetan soilguneak irekiko dira eta artelatzen landatuz berrezartzea indartuko da, lehenengo urteetan landarea babestuko duen estalketa mantenduz.
- 7. Neurria. Sistematikoki eta progresiboki zuhaitz exotikoak kenduko dira (sasi akazia, haritz ...), kentze lanek artelatzen eraginik izan ez dezaten ziurtatuz. Ekintza hau KBEko baso natural guztietan egingo da, dauden artelatzen kaltetzen ez direla ziurtatuz.
- 8. Neurria. KBEko egutera zonaldeetan, Artelatzen helduekin zuzenean lehiatzen dauden bertako zuhaitz aleak kendu, ekintza horiek artelatzen kaltegarriak ez badira.



- 7. Jarraibidea. Artelatz basoak hobetzeko ekintzen helburua, bere egitura arkitekturaren dibertsitatea izango da, adin guztietako aleen presentzia sustatuz, eta sastrakadi, belar eta brioifitoen presentzia sustatuz.

4.- EKINTZAK

Aurreko atalean aipatutako xedeak erdiesteko honako ekimenak aurreikusten dira.

4.1.- Diagnostiko eta diseinua.

-
- Artelatz aleak eta baliozko bestelako zuhaitz unadak identifikatu eta kartografiatu.
- Landare inbaditzaileak identifikatu eta geokokatu
- Aurreko ataleko landareek sortzen duten eraginaren arabera, landare exotiko desberdinen izaera inbaditzailea determinatu eta erabilgarriak izan litezkeen tekniken inguruan hausnartu ondoren espezie bakoitzarentzako kudeaketa espezifikoa proposatu (Ikusi eranskina).

4.2.- Espezie exotiko inbaditzaileen erauzketa.

Aurreko atalean aurreikusi diren guneetan, aukeratutako aleen eliminazioa burutuko da negu partean. Espeziearen arabera, gainera, udaberrien kimu berrian eliminazioa errepikatu egin beharko da. Mozketaren bidez, birsortze gaitasun mugatua dutenak edo lehendik erori/botatakoen orpo eta inguruetatik irtendako erdi mailako zuhaixkak erauziko dira. Enborretik zuzenean sortu beharrean, sustraietatik altsuma oso ugari ateratzeko arriskua duten zuhaitz helduen kasuan (sasiarkazia, ailantusa...) zutik lehortuko dira sasoi begetatiboa amaitu baino lehen. Horretarako, teknika garbiena delakoan, fitoziden injekzio kortikala erabiliko da. Behin lehortu direnean erabakiko da enborrekin zer egin.

Gure inguru hurbilean inoiz modu sistematikoan erabili ez denez, *Crocsmiaren* eliminaziorako bi saio egin beharko dira, bata eskuz bere bulboak kentzearena eta bestea glifosatoz (% 0,72) ihintzatuz. Behin modu esperimentalean aukera bien eraginkortasuna ezagututa ekin ahal izango diogu parkean zehar horren ugaria den landare honen erauzketari.

4.3.- Bertako espezien landaketa.

Udazken edo neguan egingo da lan hau. NATURA 2000ko Garate Santa Barbara eremuko helburuekin bat etorritik, bereziki artelatza landatuko da eta horretarako, lehendik hutsik ziren eremuak eta inbaditzaileak kentzean sortuko diren tartekak erabiliko dira. Baina artelatza solteaz gain, basotxoak osatzeko aukera dagoen lekuetan, gurbizta, erramua, gorostia eta bere basopea osatzeko asmoarekin, bere komunitateko bestelako landareak ere erabiliko dira.

4.4.- Heskai edo hesi bizia sortzea.

Parkea inguratzen duen harresiaren zenbait ertzetan, *Prunus laurocerasus* zuhaixkez osatutako hesi jarraia dago. Hori inguruetako basoetara zabaltzen ari denez kendu egin beharko litzateke. Alta, heskaia berria sortu beharko litzateke artelatza eta bere "kortejo"ko zuhaixkekin, KEBaren kudeaketa planaren 53. neurriak dioen bezala:

"700 m heskai landatu, elementu linealaren ondorengo ezaugarrien alde egingo duena:

- Artelatza eta bertakoak diren beste espezieak landatu.
- 4 metrotik gorako altuera eta zabalera
- Inguruko zuhaitz eta zuhaixken dibertsitatea handituko duena.
- Fruitu eta baiak sortzen dituzten espezie gehiago.
- 100 metrora arte bertako zuhaitz helduen (10cm baino gehiago dituztenak) kopurua handitu.



- Landaretzarik gabeko eremu gutxiago.
- Beste baso txiki eta heskaiekin konexio eta kontaktu handiagoa."

4.5.- Hildako egurra sortzea.

Hildako egurra izatea baso helduen ezaugarriarik behinenetakoa da. Parke bat litzateke egoera horretatik beste muturrean legokeen eredia. Naturaltasun maila jasoago bat lortzeko ekimenak ari bagara bultzatzen hau izan liteke horretarako tresnarik egokienetakoa. Lehendik ere zutik lehortutako zuhaitz bakarren batek (*Cupressus macrocarpa*) hogeitertetik gora darama bertan inolako arazorik gabe. Biodibertsitaterako horren baliotsuak diren elementu hauek sortzeko ondo legoke kentzen diren exotikoen enborrak xede hau lortzen erabiltzea. Hori, gainera, bi moduetara egin liteke, moztu eta etzanda (logs) edo zutik (snags), azken horretarako oso egokia da injekzio kortikalaren teknika. Zuhaitzak hilda geratuko lirateke urte askotarako eta soilik egonkortasun arazoak ematen hasten direnean ekingo litzaioke horiek botatzeari. Edozein modutan, esan behar da naturaltasun minimo bat izan dezan aholkatzen den hildako gutxieneko egur bolumena ($20 \text{ m}^3 / \text{ha}$) urruti geratzen dela Vista Alegren lortuko litzatekeenarekin ($20 \times 4,5 \text{ ha} = 90 \text{ m}^3$).

Hemen, eta parke erabileraren aldetik saiakera berezia egin beharko litzateke jendearen segurtasuna zaintzen. Gutxieneko neurri gisara legoke adarrak zutik ez uztean, oinezkoen zirkuituen gainean.

Gai hau lantzeko moztutako egurrez eraiki liteke zutikako egitura zilindriko bat, xilofagoen tranpa gisara jokatu lukeena eta egur hilaren gaia aurkeztu eta lantzeko erabilgarria izan litekeena.

4.6.- Ekipamendu pedagogikoa

Lehen aipatu bezala, Vista Alegrek parke urbano baten izaera du, gaur egun. Horregatik, KBEa, Natura 2000a, artelatza, egur hila, inbaditzaileak eta landu asmo diren hainbat kontzeptu jendeari azaltzeko sekulako aukera eskaintzen du. Horretarako, erabilera pedagogikorako panel batzuekin parkea ekipatzea ezinbestekoa da herritarrak uler dezan zer egin den eta ikusten duena interpretatzen jakin dezan.

4.7.- Aktibitate paraleloak

Azaldu diren lanekin batera, jendea kontzientziatu eta helburu hauen alde mobilizatu dadin beste hainbat ekimen abian ipini behar dira. Lehendik ere Arkamurka Natur Elkartea aritu izan da horrelakoak bultzatzen eta egungo proiektua baliatuz era horretako dinamikak areagotu egin beharko lirateke. Ezin aipatu gabe utzi egiten denaren inguruan, eta bereziki auzo elkartekoekin batera, kontzientzia sortzeaz gain elkarlanerako aukera urratzeko egin beharko diren bilera eta eginikoaren bisitaldiak.

Zuhaitz eguna (lehendik ere antolatzen duena, sarritan, Vista Alegren bertan), hazi eta ezkur bilketa (mintegian bertako landarea lortzeko inguruko basoetan egingo litzateke arkamurka, haritza, ametza, gorostia, gurbitza...-ren hazi bilketa), babes egiturak ipini (txori/saguzarrentzako kutxak), usteltzen utzitako enborretako egur hiletik sortutako xilofagoen azterketa....

Hauek denak bolondres gisara burutuko lirateke, orain arte bezala.

